

Danele Sarriugarte Mochales

Betiereko gazte eroak

Zehatz-mehatz oroitzen dut noiz izan nuen, lehen aldiz, Joxe Azurmendiren berri. Noiz entzun nuen lehenengoz haren izena. Ez nuen entzun etxean, ez nuen entzun nire inguru sozialean, ez nuen entzun ikastolan, ez eta institutuan ere. UEUko graduondoko batean entzun nuen: *Euskal Herriko pentsamendu kritikoa XX.-XXI. mendeetan*.

2012-2013a zen eta nik 23-24 urte nituen; nobela bat idazten ari nintzen, lehendabiziko aldiz hori ere, eta, luzaroan ez bezala, etorkizuna ez zen niretzat zulo barrundaezin bat: gai nintzen nola bizi nintekeen –bizimodu posible bat behintzat– irudikatzeko; aurrean ageri zitzaidan nire-bizitza izan zitekeen zerbait –eta, bidenabar, niretzako moduko Euskal Herri bat–. Ordura arte ihesaldia ihesaldiaren gainean kateatzen ibilia bainintzen: kanpora joan, bertan ezinda, eta ondo ibili, eta arnasa pixka bat hartu, baina beti itzuli; eta kanpora joan berriro, eta beste arnasa pixka bat, bestelako ideiak, bestelako jendeak, baina beti... itzuli.

Joxe Azurmendi aipatzen zuten graduondokoaren antolatzaileek –Alaitz Aizpuruk, Bakarne Altonagak, Andoni Olariagak–; Joxe Azurmendi aipatzen zuten irakasleek –graduondoko hartan ezagutu bainituen, esate baterako, Joseba Gabilondo eta Ibai Atutxa–, Joxe Azurmendi aipatzen zuten nire ikaskide zenbaitek –ni nintzen taldeko gazteena, eta, nik bizi nuen moduan behintzat, ‘politikarekin’ lotura gutxien zuena–.

Joxe Azurmendi aipatzen zuten denek halako miresmen ez-idolatra-baina-erabateko batekin, eta errespetu sakon-sakonez, nik neuk Sara Ahmed eta Iratxe Retolaza aipatzen ditudan bezala.

Azurmendiren lan askori buruz arituko ginen graduondokoan; fijo aipatuko genituen *Demokratak eta biolentoak* eta *Euskaldunak eta espai-*

nolak –ageriko arrazoiengatik–, baina, niri, aldiz, Azurmendiren berri lehen aldiz noiz izan nuen pentsatu, eta *Hitz berdeak* datorkit –poesia egin zuen hastapenetan filosofoak–, eta, batez ere, *Oraingo gazte eroak* datorkit: ez hainbeste liburua bera, baizik eta esaldia, izenburu horrek dakarrena.

–Eten bat jarioan, meandro bat: ez dakit inork nabarmentzen duen, eta niri erreparo pixka bat ematen dit, azalekoa eman dezakeelako, baina agian neronek aipatu beharko dut hain zuzen, pentsamenduaz eta ideiez beste batzuek hitz egingo dutelako. Edonola ere, pentsamenduaren eta ideien mamiak hitzen azalez gauzatzen ditugu, gauzatzen zituen Joxek, eta egiazko talentu bat iruditzen zait, berak bazeukana, eta ez inondik ere hutsala, izenburu catchyak sortzeko –edo hartze– zuen iaiotasuna, haren malgutasun linguistikoa, eta, are gehiago, hizkuntzarekiko zerabilen harreman jolastia, euskara akartonatuaren antitesia. Halako filosofia-molde poetiko bat, akaso–.

«ETArek sorrera inguruko kultur giroaz» ari zen Azurmendi *Oraingo gazte eroak*-en, baina ni, 2012-2013an, militantea izan gabe ere, oso *oraingo gazte ero* sentitzen nintzen; besteen begiradan bereziki.

«ETArek sorrera inguruko kultur giroaz» ari zen Azurmendi *Oraingo gazte eroak*-en, baina, niretzat, esamolde horrek errealitate zabalago bat biltzen zuen eta biltzen du: belaunaldi helduak –ertainak– nola jasotzen duen –eta maiz zalantzan jartzen eta baztertzen duen– belaunaldi gazteak –berriak– proposatzen duena.

1971n argitaratu zen *Hitz berdeak*, Azurmendik 29-30 urte zituela, eta urte berean argitaratu zuen Amaia Lasak *Poema bilduma*, bere lehendabiziko liburua, 22-23 zituela.

A e i o u berri bat.

Nire lehenengo nobelarekin publikotasunera agertzeaz nintzela, bat-batean ez nengoen hain bakarrik: Lasa eta Azurmendi neuzkan, besteak beste, aldameneari; betiereko gazte eroen genealogia bat.